

IRAUNKORTASUNA LORTZEKO GAITASUNAK

[Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren](#) 4. artikuluan adierazten denez, ikasketa-planek oinarri eta balio demokratikoak eta Garapen Iraunkorreko Helburuak izan beharko dituzte erreferentzia gisa, eta, bereziki, honako hauek: giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua; genero berdintasuna; irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua; iraunkortasunaren eta klima aldaketaren aztertzea. Balio eta helburu horiek zeharkako eduki edo gaitasunen artean ezarri beharko dira irakaskuntza ofizialetan (ikastetxeak edo unibertsitateak erabakitzen duen formatuan), modurik egokienean, eta, betiere, ikasketen izaera akademiko espezifikoak eta titulu bakoitzaren prestakuntza helburuak kontuan hartuta. 2022ko urtarrilean, [Europako Batzordearen Iraunkortasunari buruzko Eskumenen Europako Esparrua](#) (GreenComp) argitaratu zen. Esparru horren arabera, iraunkortasunari buruzko gaitasuna da ikasleari iraunkortasun-balioak sartzeko ahalmena ematen diona, ekosistemaren osasuna berrezarri eta mantenduko duten eta gizarte-justizia hobetuko duten ekintzak hartu edo eskatzeko, eta etorkizun iraunkorragoetarako ikuspegiak sortuz. Jarraibide hori berretsita geratu da [Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoan](#) (LOSU), I. tituluan, 2. Artikuluan eta CRUEk unibertsitateko [ikasketa-planetan iraunkortasuna sartzeari buruzko txostenean](#) jasotakoa. Bestalde, [UPV/EHUn 2022-2025 Plan Estrategikoaren](#) 6. helburuan (Pertsonak ardatz estrategikoan) jasota dago pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, aintzat harturik unibertsitatearen eginkizuna eta Ikuspegia, horretarako [EHU-agenda 2030en](#); esparruan jarduerak antolatuz, unibertsitateko kideak iraunkortasunarekin bat etor daitezten.

Horiek horrela, Ekonomia eta Enpresa Fakultateak **Iraunkortasunerako Hezkuntzarekiko (IH)** konpromisoa hartzen du, ezagutzan, balioetan eta jarretan aldaketak sustatzeko funtsezko eragile gisa, guztiontzako gizarte jasangarriagoa eta bidezkoagoa lortzeko. Abiapuntu hartuta [UNESCOk \(2017\)](#) zehaztu eta UPV/EHUK [Zeharkako Gaitasunen Katalogoan \(2019\)](#) bere egin zituen jasangarritasunaren aldeko gaitasunak, UPV/EHUK proposatutako ikaskuntza-emaitzak hiru garapen mailatan banatu dira —oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua—, EEFn ematen diren gradu eta graduondokoen irakaskuntzan gaitasun horiek koordinatu eta ezartzeko.

Oinarrizko maila	Maila ertaina	Maila aurreratua
Ezagutza <i>Aurkikuntza/Sentsibilizazioa</i>	Inplikazioa <i>Mobilizazioa/Aktibazioa</i>	Inplementazioa <i>Frogatu/Egiaztatu</i>
Lankidetzarako gaitasuna Beste batzuekin batera modu enpatikoan eta parte-hartzailean lan egitea, ekonomiaren eta enpresaren arloko proiektu edo zeregin bat osatzeko.		
Oinarrizkoa	Ertaina	Aurreratua
Lankidetzarako inguruneak erabiltzen dira (ikasgela birtualak, foroak, etab.) informazioa eta baliabide pertsonalak trukatzuz, proiektu, politika edo ekintza ekonomiko	Ikasleek lantalde desberdinetan hartzen dute parte beste ikuspuntu batzuk ulertzeko eta ikaskuntza aberasteko, ekonomikoa enpresa arloko proiektu batek gizarlean,	Arlo ekonomia eta enpresa arloko lankidetzari baliabideak erabiltzen dira garapen jasangarriko proiektuak egiteko, eta bere gain hartuta erabakien

enpresariaren jasangarritasuna identifikatzeko	ingurumenean eta ekonomian dituen ondorioak aztertzeke.	erantzukizun ekonomiko eta soziala.
Aurrea hartzeko gaitasuna		
Ekonomia eta enpresa arloko erabakiek ekar ditzaketen egoera posibleak aurreikustea, baita horiek gertatzeko aukerak ere, eta egoera posible bakoitzean hartu beharreko erabaki eta ekintzak aztertzea.		
Oinarritzkoa	Ertaina	Aurreratua
Politika, proiektu edo jarduera ekonomiko eta enpresariaren arloko esperientziak hartzen dira kontuan, eta eragin ekonomiko eta soziala aztertzen da.	Etorkizun izango duen jarduera profesionalarekin zerikusia duten politika, proiektu eta jardueren eragin orokorra (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) aurreikusten da.	Hainbat agertoki ulertu eta ebaluatzeke gaitasuna (posiblea, gertagarria eta desiragarria), ekintza ekonomiko eta enpresariaren ondorioak zehaztuz
Araugintzako gaitasuna		
Ekonomiaren eta enpresaren arloko erabakiak hartzeko balio eta printzipio deontologikoei buruz hausnarketa egitea.		
Oinarritzkoa	Ertaina	Aurreratua
Ekonomia eta enpresa arloan, arlo digitalean, sozialean edo ingurumenaren arloan jokabide desegokiak edo ez oso jasangarriak identifikatzen dira, horiek saihesteko.	Etorkizuneko jarduera profesionalari begira prestakuntza testuinguruan hartu beharreko erabaki ekonomiko eta enpresariaren ondorio etiko eta sozialak aztertzen dira.	Ekonomia eta enpresa ekintzen azpian dauden arau eta balioei buruzko gogoeta egiten da, interes gatazka dagoenean egokiak ote diren aztertuz eta jasangarritasuneko helburuak lortzeko printzipioak eta helburuak negoziatuz.
Estrategia gaitasuna		
Ekonomia eta enpresa arloko esku-hartzeak diseinatzea, bideragarritasun, efizientzia eta eraginkortasun irizpideak kontuan hartuta.		
Oinarritzkoa	Ertaina	Aurreratua
Ekonomiaren eta enpresaren arloko erabakien hobekuntza arloak identifikatzen dira, lehentasun ordena eta jasangarritasun irizpideak ezarriz.	Ekonomiaren eta enpresaren arloko produktu, prozesu eta/edo sistemak diseinatzen dira, muga errealisten barruan eta jasangarritasun irizpideak ezarriz.	Ekonomia eta enpresa estrategiak abian jartzea, egoera erreal/errealistetan dauden baliabideak kudeatuz eta jasangarritasun irizpideak erabiliz.
Pentsamendu kritikorako gaitasuna		
Eskura dagoen informazioa aztertu eta ebaluatzea, eta informazio hori egokia den eta garapen jasangarriaren arloan aurrera egiteko aukera ematen duen erabakitzea, modu autonomoan eta irizpideekin.		
Oinarritzkoa	Ertaina	Aurreratua
Prestakuntza jardueraren esparruan, informazio jakin bat aztertzea eta planteatutako arazoa	Ekonomia edo enpresa arloko egoera baten aurrean, arazo jakin bat konpontzeko aukerak ebaluatu, irizpide propio,	Egoera erreal/errealista bateko baliabideak kudeatzea, garapen jasangarriaren aurrerapenak ahalbidetuko dituzten

konpontzeko egokia den edo ez aztertzea.	dokumentatu eta arrazoituekin.	ekonomia- eta enpresa-estrategiak abian jartzeko.
Autokontzientzia/autokritikarako gaitasuna Gure ekintzen eragina zalantzan jartzea eta lan edo gizarte harremanetan dugun zereginaz jabetzea.		
Oinarrizkoa	Ertaina	Aurreratua
Faktore pertsonalek ekonomia eta enpresa arloan duten eraginaz jabetzen da, garapen jasangarrian aurrera egiteko esku-hartze positiborako gaitasuna aztertuz.	Ekonomia eta enpresa arloko eginkizun konplexua garatzen du, modo pertsonalean inplikatur, bere emozioak kudeatuz eta garapen jasangarria bilatuz.	Garapen jasangarriaren helburu eta erronketan inplikatur da, bere jardun eremuan hobekuntzak ezarriz, bere itxaropen pertsonal eta profesionalak berregokituz eta etorkizuneko erronka berriei aurre eginez.
Arazoak ebazteko gaitasuna Ikasitako trebetasun eta ezagutza guztiak erabiltzea arazo konplexu bat konpontzeko eta garapen jasangarria sustatzen duten irtenbideak bilatzeko.		
Oinarrizkoa	Ertaina	Aurreratua
Ekonomiaren eta enpresaren eta gizartearen gaur egungo egoera moldatzen duten arazoei konponbidea bilatzen zaie, irakasgaiaren berariazko gaiarekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak aplikatuz.	Ekonomia, enpresa eta/edo gizarte arloan esku hartzeko proiektu errealista garatzen da, aukera posibleen artean aukeratu eta erabakiak hartuz eta garapen jasangarrian aurrera egiteko bidean izango dituen eragina eta ondorioak aztertuz.	Ekonomiaren eta enpresaren arloko gaur egungo egoeran dagoen arazo bat konpontzeko dauden baliabideak kudeatzen dira, garapen jasangarria sustatzen duten aukerak sortuz.
Pentsamendu sistemikorako gaitasuna Askotariko ezagutzak integratzea, kausak eta ondorioak elkarrekin lotzea, arazo baten globaltasuna ulertzeko.		
Oinarrizkoa	Ertaina	Aurreratua
Ekonomiaren eta enpresaren eremuan praktika profesionaleko egoera bati eragiten dioten interes askotarikoak identifikatzen dira.	Egungo garapen ereduaren politika eta programa ekonomiko eta enpresarialek dituzten ondorioak aztertzen dira gizartean eta ingurumenean duten eragina zehazteko.	Arlo desberdinetako ezagutzak erlazionatzen dira, ekonomia- eta enpresa-erabakietako egoera konplexuei erantzun integrala emateko eta garapen jasangarrian aurrera egiteko.

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Kalitate Batzordean balioztatua 2023/06/30ean